A 1329

loiola

Droga arazoak Loiolan

azkenaldian Loiolan droga trafikoaren igoera larria somatu da. Inguruko herrietatik eta Donostia osotik etortzen dira drogazaleak eta gehien bat frontoi inguruan dabiltza. Horren eraginez lapurretak hasi dira eta mehatxuak ereizan dira auzoko gazteen aurka. Atarietan xiringarik ere aurkitu da. Droga-saltzaileen aurkako pintadak agertu dira eta Loiolako Gazte Asanbladak egoera salatu du kartel batzuen bidez, jende guztiarentzat dagoen arriskuaz ohartaraziz. Dagoeneko hasiak dira auzoko elkarteak egoerari aurre egiteko elkartzen, hauen esanetan guztion lana beharko da konpontzeko eta mobilizazioak egon daitezke datozen egunotan.

GORKA MUNETA (TFNOA.: 461540)

Kaldereroak gainerako auzoetan joan den astean ospatu badira ere, otsailaren 10an izango ditugu Loiolan. 22.30etan aterako dira frontoitik, eta lehenago, 20.00etan, afaria izango da Loiolatarra elkartean. Argazkian iazko Loiolako kaldereroak ditugu.

altza

Olinpiadak Altzan

altzako kale hezitzaileek, gazte talde batez lagundurik «Altzako Koadrila arteko I Olinpiada» antolatu dute datorren martxorako.

Bi maila izango ditu olinpiadak, 14-18 urte bitarteko gazteentzat eta 19-25 urte bitartekoentzat. Talde mistoak izango dira eta bakoitzean 5-8 lagunek parte hartu ahal izango dute. Honako kirol hauek egingo dira: futbola, ping ponga, sokatira, altxor bilaketa, 3x3 saskibaloia, pala, maratoia, futbolina, dantza eta ur ekintzak. Sariak orokorrean kirola egiteko materialak izango dira.

Otsailaren 20tik aurrera kale hezitzaileen bulegoan, Gazte Lekuan, Larratxoko parrokian, Casares kultur etxean eta polikirodegian azalduko da talde bakoitzak noren aurka jokatu behar duen, noiz, non eta sailkapen sistema.

Parte hartu nahi duten gazte taldeek 353734 telefonora dei dezakete informazioa eskuratzeko.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

bede
DESKANTSUAREN ETXE ZIENTIFIKOAK
Armerien plaza 4 atzea, (Olaeta parkea) • Tfnoa.: 45 65 06

Casa de Pabones
1930ean sortua
Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak
Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia

INTXAUSTI DIETETIKA
Santiveri
jaki osasuntsu eta naturalak
Jose Elosegi 120 • Tfnoa.: 39 89 84

Bertan eginak • Etxez-etxeko banaketa
Candy
GOZO ETA BONBOI DENDA
Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605 ALTZA